

BAZTERKERIA-EGOERAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEKO ARRETA EMATEKO ZERBITZUARI BURUZKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko otsailaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legegintzaldian aurrerapauso handiak eman ziren Gizarte Ekintza Sailean, besteak beste, bazterkeria egoeran eta kalean bizi diren pertsonentzako baliabide berriak martxan jarri eta departamentuko aurrekontua nabarmen igoz. Sobera dago aipatzea aurrerapauso horiek ez direla nahikoa eta azken hilabeteen izandako gertakariak argi adierazten dutela kalean bizi diren pertsonentzako baliabideak sortzen eta hobetzen jarraitu behar dugula.

Hilabete hontan 2020 Estrategiaren baitan egindako txostenak ere agerian utzi du Donostian 439 pertsona bizi direla etxerik gabe, bazterkeria egoera larrian; 520 pertsona bizi direla egoera desegokian dauden etxebizitzetan eta 1.024 pertsona bizi direla 10 metro karratuko espazioetan (pilaketa egoeran).

Bazterkeria egoeran dauden pertsonen alorrean, lehengo legegintzaldian emandako berrikuntza aipagarrienak Gauekoa izeneko aterpea martxan jartzea, urte osoko irekierarekin (lehen Negukoa deitzen zena eta 3 hilabetez irekitzen zena), eta Hestia deritzon eguneko zentroaren irekiera dira. Azkeneko hau San Bartolomen dago eta RAIS enpresak kudeatzen du bi urteko kontratuarekin. Hasieran, eguneko zentroa lokal batean jarri zen behin-behineko epearekin eta 2016-2017ra begira leku aproposago bat, handiagoa eta hiriko erdigunean, bilatzeko konpromisoa hartu zen.

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa begiratzen badugu, argi adierazten da: bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eguneko arreta emateko zerbitzua, eskakizun txikikoa dena, udal eskumenekoa da.

Udalbatzak otsailaren 25an egindako osoko bilkuran Irabazi udal taldeak aurkeztutako kontrol-mozioaren ondorioz, Gizarte Ekintzako ordezkariak aipatu zuen bazterkeria egoeran bizi diren pertsonentzako baliabideak berrikusten ari direla eta *Housing First* bezalako aukerak aintzat hartuko zituztela, baina ez zuen zehaztasunik eman. Baina, Udal Gobernuaren programa begiratzen badugu, honako hau adierazten du 44.orrrialdean: *“prebentziorako baliabideez gain, bizitegi-bazterkeria egoeran dauden pertsonen harrera egiteko gaur egungo baliabideak hobetuko ditugu eta beste batzuk jarri. HESTIA – gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua – hobetuko dugu, zerbitzu horretarako kokaleku egokia bilatuz eta kalitateko zerbitzua emateko ekipamendua zehaztuz”.*

